

NOTA MISTERIOTSU BAT ZABORRONTZIAN

Istorio hau duela 63 urte gertatutakoa da, herri baten kanpoaldean, basoz inguratuta zegoen etxetxo batean. Abuztu bukacraکو egun curitsu bat zen, eta aitona bilobari itxaroten ari zen. Gurasoak lanera joan behar ziren, eta horrelakoetan aitonarekin uzten zuten alaba. Aitonak William zuen izena, eta 77 urteko gizon alarguna zen. Oso xelebrea zen, eta txikitan oso kirolzalea, batez ere arte martzialetan.

Bat-batean kotxe baten argiak ikusi zituen. Bere biloba zetorren! Ateruntz hurbildu zen, eta atea irekiz, etxeko sarreran itxaron zien. Minutu gutxira haren semea, biloba eta erraina etorri ziren. Semeak Jon zuen izena, seme bakarra zen eta 42 urte zituen. Errainak, 40 urteko neska langilea, enpresa batean lan egiten zuen, eta Koro zuen izena. Bilobak, berriz, Maddi zuen izena, eta zortzi urteko neska polit-polita zen. Askو gustatzen zitzaion aitonaren etxera joatea, aitonarekin egiten zituen planak oso dibertigarriak zirelako.

Bilobak, iritsi bezain pronto, aitonari besarkada handi bat eman zion. Aitonak seme eta errainari agur esan eta bilobarekin hitz egiten hasi zen:

—Bueno, Maddi, zer egin nahi duzu gaur?

—Zuk nahi duzuna, aitona.

—Ba... egia esanda, gauza bat egitea pentsatuta neukan, baina ez dakit nahiko duzun...

—Bai, bai aitona! Zer da?

—Maddi, begira iezaiozu etxeko sarrerari. Ez duzu uste pixka bat zozoa dagoela?

—Zer gertatzen zaio? Nik ez diot ezer txarrik ikusten...

—A, ez? Ez duzu uste koadro bat ondo etorriko zaionik?

Bilobak poz handiz baietz esan zion buruarekin. Aitonak koadroa egiteko gauzen bila joan zen, Maddik sukaldeko mahaia hule batez estaltzen zuen bitartean.

—Aitona, eta zer margotuko dugu?

—Zer iruditzen zaizu udazkeneko paisaia polit bat egiten badugu, koloretako hostoz eta ondoz inguratuta, zeru grisarekin eta hodei...

—Joe, aitona, ze rolloa! Zergatik ez dugu Marteko alien batzuen koadroa egiten, eta Lurreko pertsonak...

—Ejem, Maddi. Pentsatu nire etxeko sarreran jarriko dugula.

—Aitona, eta zergatik ez didazu kontatzen zu txikia zineneko istorio dibertigarri horietako bat, adibidez gauero kotxez zihoan pertsona horrena, jendearen atzetik zihoana, eta...

—Baina istorio hori beti kontatzen dizut. Gaur beste bat kontatuko dizut, ikusiko duzu zer dibertigarria izan zen.

Biloba egongelan zegoen aulkirantz joan zen korrika. Han kontatzen zizkion aitonak beti istorio interesgarriak. Egongelak leiho handi bat zuen, handik baso osoa ikusten zena.

—Ez duzu lehenengo meriendatu nahi —esan zion aitonak— istorioarekin hasi baino lehen?

—Ez dut meriendatu nahi, istorioa entzun nahi dut!

—Ondo da...

Aitona istorioa kontatzen hasi zen.

“Istorio hau 14 urte nituenean gertatu zen. 5 egun falta ziren eskola bukatzeko eta udarako oporrak hasteko. Institutua bukatu bezain pronto, nire lagunek eta nik gure herri ondoko ibaitik pasco bat eman nahi genuen. Gure gurasoek, 2 aldiz pentsatu ondoren, azkenean baietz esan zuten. Urtebete lehenago lortu genuen ontzi txiki batean joan behar ginen, gure matematikako irakasleak eskerrak emateko egin zigun opari bat izan zen, bere ama lapur batzuetatik salbatzeagatik.

Beno. Egun haietako batean herrian barrena nenbilen, gure ontzirako soka batzuk erosi behar nituelako. Sagar bat jaten ari nintzen, eta bukatu nuenean, zaborrontzira botatzera nindoan. Zaborrontzi horretako tapa ireki nuenean, paper arraro bat ikusi nuen, irudi bitxi batzuekin. Oso harrigarria zen, ematen zuelako arabieraz idatzita zegoela, eta nire motxilan gordetzea erabaki nuen. Barnetegirantz abiatu nintzen, baina hurbildu ahala, gero eta gogo handiagoa nuen planoa ikusteko, eta hartu behar izan nuen. Mota askotariko ikurrak eta hitzak agertzen ziren. Zentzu pixka bat bilatzen saiatu nintzen, baina ez nuen ezertxo ere ulertzen. Barnetegira iritsi nintzenean, badaezpada planoa gorde nuen.

Azkenean eskola bukatu zen. Amaitu bezain pronto nire lagunek eta nik ontzia gordetzen genuen lekura joan eta ibaira eramanez genuen. Gurasoei agur esan, eta martxan jarri ginen. Gure helburua Urtz izeneko herri batera joatea zen. Ibaian zehar zeuden lursailetan lo egingo genuen, eta janaria prestatzeko tresna bat eramanez nire lagun Danik.

—A ze poza! Azkenean eskola bukatu dugu eta orain ibaian barrena goaz —esan zuen Tomasek.

—Bueno... —esan zuen Diegok beldurra disimulatu nahian.

—Lasaitu, mutiko! —esan zion Danik—. Oso esperientzia harrigarria izango da.

Ni oso isilik nengoela ohartu ziren denok. Arraun egiten nindoan, baina nire gauzetan pentsatzen. Ez nien lagunei kontatu nire aurkikuntza harrigarria.

—Zerbait gertatzen zaizu? —galdetu zidan Mirenek, bere begi handiak zuzen-zuzen begira nituela.

Miren taldeko neska bakarra zen. Ile horia eta begi urdinak zituen. Animaliak asko gustatzen zitzaizkion, batez ere txakurrak.

—Ez, lasai, ez zait ezer gertatzen; nire gauzetan pentsatzen ari naiz —erantzun nion.

Eguzkia ezkututzen ari zen. Arraun egiteari utzi, eta afaria prestatzera joatea erabaki genuen. Leku on bat bilatu ondoren, kanpin-dendak prestatzen hasi ginen. Danik, Tomasek, Diegok eta nik denda batean lo egingo genuen, eta Mirenek, neska zenez, bere espazioarekin beste denda batean egingo zuen lo. Afaldu ondoren lotara joan ginen, hurrengo egunean goiz esnatzeko.

Eguzkia ateratzen ari zen. Goizeko 6ak ziren. Denak lotan zeuden baina ni esnatu egin nintzen, ezin niolako planoaz pentsatzeari utzi. Zer ote ziren ikur horiek? Begiratzen egon nintzen adi-adi. Ez nion logika aurkitzen.

Minutu batzuk pasa ondoren, nire lagunak esnatu ziren. Gosaria prestatu eta gero, ontzia uretara sartu, eta bidean abiatu ginen. Denok oso ondo pasatzen ari ginen, paisaia oso polita zen, eta eguraldia oso ona atera zen. Nik plano horietan kontzentratuta segitzen nuen, eta uste dut nire lagunek ere nabaritu zutela.

—William... Benetan, ondo zaude? —insistitu zuen Mirenek berriro ere.

Nik, azkenean, esateko garaia iritsi zitzaidala pentsatu nuen.

—Begira —esan nuen—, eskola bukatu aurretik, egun batean erosketa batzuk egitera joan nintzen. Dena kasualitatez gertatu zen; jaten ari nintzen sagarra zaborrontzi batera bota behar nuenean, paper hau aurkitu nuen.

Papera erakutsi nien.

—Moskeatuta nauka honek, ez dakidalako zein hizkuntzatan dagoen idatzita.

Denek harrিতa begiratu zuten papera.

—Eta nola dakizu zerbait daukala ezkutuan, eta ez dela norbaitek egindako gauza sinple bat? —galdetu zidan Danik.

—Ez dakit garrantzitsua den edo ez, baina niri zerbaitek esaten dit paper honek gauza garrantzitsu bat daukala ezkutuan.

Hurrengo ordu erdia arraunean eman genuen isilik, denok paperaren kontua buruan genuela. Azkenean, Diegok hautsi zuen isiltasuna.

—Ni goseak nago. Zergatik ez dugu geldialditxo bat egiten?

Denok Diegoren ideiarekin bat geunden, eta lehorrerantz joan ginen. Bazkaldu ondoren borobil batean eseri ginen.

—William, atera ezazu aurkitutako papera mesedez —esan zidan Tomasek.

Papera atera nuen.

—Begira ezazue ikur hau —esan nien—. Mendi baten itxura dauka.”

Bat-batean, aitona bilobaren bihotza geroz eta azkarrago zihoala konturatu zen.

—Gustatzen ari zaizu abentura?

—Bai! Aitona, segitu kontatzen!

“Denak nik esandako ikurra aztertzen ari ziren.

—Ez dakit nik ba, borobilegia da mendi bat izateko —esan zuen Danik.

—Utzidazu ikusten —esan zuen Mirenek.

Bera zegoen lekuan itzala zegoen, eta ez zen oso argi ikusten.

—Eguzkitara noa momentu batean, ez dut oso ondo ikusten itzalarekin.

Ibiltzen ari zen poliki-poliki, ibairantz hurbiltzen pixkanaka, paperari begira. Guk bitartean ontzia uretan sartzeari ekin genion.

—Miren, etor zaitez! —esan zuen Diegok—. Joan beharra daukagu.

—Bai, minutu bat mesedez!

Mireni itxaroten geunden bitartean, Mirenen silueta ikusi nuen uretan, eta haren ondoan parera, eta... Hara zer aurkikuntza!

—Arranopola! —esan nuen—. Begira ezazue Mirenen isla uretan!

Denok aho zabalik geratu ziren.

—Miren, ez mugitu hortik! —esan zuen Danik.

—Ondo ikusten ari naiz benetan? —esan zuen Diegok.

—Zer gertatzen da? —galdetu zuen Mirenek, beldur pixka batekin.

—Miren, misterioa argituta daukagu! —esan nion—. Banekien nik zerbait zuela ezkutuan! Karta hau idatzi zuenak ispiluaren teknika erabili zuen, hau da, hitz hauek alderantziz daudela esan dezakegu, eta hori bakarrik ispilu batekin irakur dezakegu. Baina momentu honetan, ispiluarena egiten du urak, eta jartzen duena argi-argi daukagu aurrean!

—Eta zer jartzen du? —jakin nahi izan zuen Mirenek oso urduri.

Tomas irakurtzen hasi zen.

Neguko egun batez, 1879

Nire etxean lapurreta egitera etorri dira lapur batzuk. Duela askotik belaunaldiz belaunaldi pasa den astxor bat bada nire familian diamantez eta harri bitxiz osaturik, eta nik neuk daukat gordeta. Uste dut hauek nire bizitzako azken egunak izango direla. Badaramat egun batzuk lapurrengandik ihes egiten, baina ezin dut horrela segitu. Karta hau irakurtzen duenarentzat, astxorra nire estrategia dago, atzeke sarreratik 16 pausetara iparralderantz joanda, zuhaitzaren ezkerrean. Espero dut gutun hau norbaitek aurkitzea.

Sinatuta: Robert Fin.

Denok aho zabalik geratu ginen.

—Ezin dut sinetsi! —esan zuen Mirenek.

—Goazen ondoren dagoen herriko komisaldegira, poliziari gutun hau erakustera —esan nuen.

Eta horrela egin genuen. Iritsi ginenean poliziari irakurri genion gutun hura. Poliziak harrিতuta esan zigun:

—Oso gauza baliotsua aurkitu duzue neska-mutilok. Duela askotik gabilta Robert Flin aberatsaz zerbait jakin nahian, baina ez dugu inoiz lortu ezer aurkitzea. Gutun honekin ni eta nire lankideak geratuko gara, aztertzeko. Momentu batean zuen telefonoak emango dizkidazue, berriren bat badaukagu deitzeko. Mila esker, benetan.

Poliziari agur esan, eta oso pozik, gure ibilbidea jarraitzeari ekin genion —jarraitu zion kontaktzen aitona bilobari.

Azkenean Urtzera iritsi ginen, eta gure gurasoei deitu genien gure bila etortzeko. Bidean geundela, bat-batean nire telefonoa entzun genuen; norbait deitzen ari zitzaidan... Beno, hortik aurrerakoa beste egun batean kontaktuko dizut... Horrela bukatzen da gaurkoz istorioa.”

—Zer interesgarria izan den istorio hau, aitona! Benetan gertatu zitzaizun hori?

—Jakina baietz bilobatxo!

—Baina, nork deitu zizun?

—Banekien hori galdetuko zenidala! Polizia izan zen! Esan zidan Robert Flinen etxera joan zirela, eta gutunean esaten zen bezala, lorategian altxorra zegoela. Kontatu zidaten hiriko museoan utzi zituztela diamanteak eta harri bitxiak, eta hurrengo eguneko egunkarian lehenengo orrian aterako zela berria, gure izenak aipatuz eta esanez gu izan ginela misterio hau askatu genuena!

Handik gutxira etxeko tinbrea entzun zen. Maddiren gurasoak zetozen. Aitona erlojuari begiratu zion. Zer azkar pasatu zen arratsaldea! Atea irekitzera joan zen.

—Kaixo! —agurtu ziren—. Mila esker Maddi zaintzeagatik, oso mesede handia egin diguzu —esan zion aitak.

—Ez da ezer —esan zuen aitona—. Badakizu beti oso ondo pasatzen dugula elkarrekin.

—Noski baietz! —esan zuen Maddik. Aitona agurtu eta hark kontatutako istorioa hasi zitzaizen kontaktzen Maddi gurasoei.